

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

223/2015 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, behin betiko onartzen duena, zenbait baldintzarekin, Bernedoko Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 1. aldaketaren espedientea

AURREKARIAK

Lehenengoa. Bernedoko Udalak hasierako onarpena ematea erabaki zuen, 2014ko ekainaren 10ean, Bernedoko Herrigune Historikoa Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 1. aldaketari, baita horri buruzko espedientea Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailera bidaltzea eta erabakia Bernedoko Administrazio Batzarrari jakinaraztea ere. Halaber, hura jendaurrean jartzea erabaki zen, ALHAOn (69 zk., 2014ko ekainaren 20koa), El Correo egunkarian eta udalaren iragarki taulan iragarki bana jarrita.

Bigarrena. Jendaurreko informazioaren aldia, hiru alegazio aurkeztu ziren eta idazketa taldeak haiei buruzko txostena egin zuen. Udalak, 2014ko urriaren 7ko ohiko bilkuran, alegazioetarik bat partez ezetsi eta gainerakoak baietsi egin zituen. Ondoren, 2014ko abenduaren 2an egindako ohiko bilkuran, udalak behin-behineko onarpena eman zion Bernedoko Herrigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 1. aldaketari.

Hirugarrena. Bernedoko Udalak espedientea bidali zuen, aldukiak behin betiko onar zezan (Arabako Foru Aldundian egun honetan sartu zen: 2015eko martxoaren 26a).

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Bernedoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 1. aldaketaren xedea da Bernedoko herrigune historikoko hainbat azpizonen antolamendu xehatua egitea; baita hirigintza kudeatzeko unitateak arautzea eta eguneratzea ere, lortu nahi dena baita Bernedoko herrigune historikoa birgaitzeko Birgaitze Integratuko Arearen hirigintza (BIA) behar bezala birgaitzea. Hauexek dira xede nagusiak: herrigune historikoa babestu eta onik zaintzea, ondare eraiki eta urbanizatua balioestea eta hobeto erabiltzea, bizilagunak bertan gelditu daitezten lortzea, etxebizitzaren kalitatea hobetzea, bizi baldintza hobekuntza eskaintzea, eta komunitate ekipamenduak eta ekonomia jarduera bateragarriak babestea.

Bigarrena. Bernedoko herrigune historikoko antolamendu xehatua egun Bernedoko planeamenduko arau subsidiarioetan araututa dago, zeinak apirilaren 15eko 378/2003 Foru Aginduaren bidez onartu baitziren; baita Bernedoko BIPBan ere, zeina uztailaren 2ko 437/1996 Foru Aginduaren bidez onartu baitzen. Bi tresna horiek indarrean daude.

Halaber, 2000ko urtarrilaren 18an, Bernedoko herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Arearen adierazpena egin zen, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren agindu baten bidez.

Hirugarrena. Bernedoko BIPB aldatzeari buruzko txosten teknikoak hainbat aldaketa proposatzen ditu:

1. BIPBren mugak herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Areara egokitzea, zeina Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren 2000ko urtarrilaren 18ko Aginduaren bidez onartu baitzen. Agindu hori Bernedoko herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Arearen adierazpena egiteari buruzkoa da.

2. Harresiaren trazaduraren benetako mugak plan berezian sartzea; hain zuzen ere, ipar ekialdeko bazter jada berrituaren tartea.

3. Antolamenduz kanpoko hainbat egoera berraztertzea.

4. Baimenduriko eraikuntza esku hartzeen definizioak araudi berritura egokitzea.

5. Sotoaren eta erdisotoaren definizioak indarreko arau subsidiarioetan ezarritakoarekin bat etorritzat eranstea.

6. Fatxadetarako baimendutako kolore eta akaberak zehaztea.

7. Aparkalekua erabiltzeari buruzko hainbat alderdi aldatzea.

8. Lehengo jardun unitateen hirigintza kudeaketa indarreko legediara egokitzea: jardun integratuak eta hornidura betearazteko jardunak.

Eusko Jaurlearitzako Kultura Ondarearen Zentroak Bernedoko BIPBaren 1. aldaketari buruzko aldeko txostena egin zuen, 2014ko uztailaren 29an. Esan behar da aldaketa hori ongi baloratu dela, Bernedoko harresiei balioa eman eta haiek onik zaintzea proposatzen baita.

Laugarrena. Formaren eta materialaren edukiaz.

Txosten tekniko hau memoria batek, hasierako onarpenaren alegazioei buruzko txosten tekniko batek, hirigintza arauak, kudeaketa unitateen fitxek eta planoek osatzen dute.

Hirigintza arauak dagokienez, hiru eratakoak bereizten dira: arau orokorrak (I. titulua); eraikingintzaren, urbanizazioaren eta erabileren gaineko arauak (II. titulua), eta kudeaketaren gaineko arauak (III. titulua).

Txosten teknikoak zenbait agiri falta ditu, plan bereziaren hirigintza araudiaren 7. artikuluan aipatzen direnak (gizarte eta hirigintza azterlana A. , eraikingintzaren eta espazio libre publikoen katalogoa F. , eta ekonomia eta finantzen azterlana eta jarduera programa D.). Arazo hori argitu egin beharko da eta, hala badagokio, konpondu. Hain zuzen ere, beharrezkoa da aurkeztea ekonomia eta finantzen azterlana eta jarduera programa, proposamen berriek berekin dakartzate-eta behar bezala justifikatu behar diren inbertsio publiko eta pribatuak egitea.

Bosgarrena. Plan bereziaren antolamendu xehatuaz.

Birgaitze Integratuko Plan Bereziak eta haren aldaketek –hau da kasua– modu xehatuari antolatzen dituzte planeamenduen eremuko hainbat azpizona eta kudeaketa eremu bat edo gehiago.

Hala ere, BIPB aldatu izanak ez dauka ahalmenik Bernedoko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko; aldiz, kontrako jasotzen du txosten teknikoaren memoriak. Hierarkian goragoko mailan dagoen planeamendu tresna bat da planeamendu orokorra, eta hura inola ere ezin dezake aldatu garapen planeamenduak.

Besterik da Bernedoko BIPBk Bernedoko herrigune historikoko eremuko antolamendu xehatua aldatzea.

Beraz, ezabatu egin beharko dira memoria, 1. paragrafoan, horri buruz egiten diren erreferentziak, han esaten baita BIPBk aldatu egiten dituela Bernedoko planeamenduko arau subsidiarioak; hortaz, berriz ere idatzi behar paragrafo hori zuzen.

Seigarrena. Euskal lurzoruen Legeak 68. artikuluan eskatzen duen eta oraindik falta den ekonomia eta finantzen bideragarritasun azterlanaz gain, ekonomia irakunkortasunaren memoria (ekainaren 20ko 2/2008 Legearen, lurzoruenaren, testu bateratuko 15.4. artikulua eskatzen du) erantsiko da txosten teknikoari. Memoria horretan, batez ere haztatuko dena da zer eragin daukan ezarpenak eragindako ogasun publikoen jardunean eta zenbat kostatuko den ezarpenarako beharrezkoak diren azpiegiturak mantentzea eta horren ondoriozko zerbitzuak ematea; halaber, ekoizpen erabileretarako gordetako lurzorua nahikoa eta egokia den ere haztatuko da.

Zazpigarrena. Antolamenduko eta betearazte kudeaketako jarraibideei buruzko agiriei dagokienez, Hirigintza Planeamenduko Erregelamenduko 60. artikuluan deskribaturiko urratsen plana sartu beharko du planoetan plan bereziak.

Zortzigarrena. Memoriari, araei eta panoei buruzko alderdi jakin batzuk:

1. Bizitegitarako azpizonan aldatu egin beharko da 2-B planoaren legenda: "bizitegitarako oraingo erabilerak" jarri beharrean "bizitegitarako erabilerak" jarri beharko du.

2. Kendu egin beharko da "berrikuspen" hitza txosten teknikoko memoriatik, Plana aldatzeko egokitasuna eta aukera atalean.

3. Integraturiko jardun unitateen izenak bateratu beharko dira sigla berdinak erabilita, ez dadin gaizki ulerturik egon.

4. "Erabilera debekatua" definizioa idatzi behar da 58. artikuluan, zeina gero aipatzen baita 63. artikuluan.

5. Zuzendu egin beharko da 71.4. artikulua, jardun integratua baita, eta UAI.2-A. jardun unitateari egokitu beharrean UAI.1-B jardun unitateari dagokio.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Bernedoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 1. aldaketaren espedientea:

1. Argitzea zergatik falta diren hirigintza arauetako 7. artikuluan aipatzen diren agiri hauek: gizarte eta hirigintza azterlana A. eta eraikingintzaren eta espazio libre publikoen katalogoa F.

2. Ekonomia eta finantzen azterlana eta jarduera programa aurkeztea.

3. Memoriaren 1. paragrafoa bosgarren oinarriaren arabera aldatzea.

4. Ekainaren 20ko 2/2008 Legeak eskatzen duen ekonomia irakunkortasunaren memoriarekin osatzea txosten teknikoak.

5. Hirigintza kudeaketako planoetan urratsen plana sartzea.

6. Memoriari, araei eta panoei buruz zortzigarren oinarrian aipatutako alderdi zehatzak aldatzea.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 22a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO